



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Maureen Choi Qu4rtet-ek egingo du emanaldia Arriagan datorren maiatzaren 2an, Pierre Dørge New Jungle Orkestraren ordez

- “BJC Arriagan” zikloaren baitan bertan behera geratu den kontzerturako sarrerek programatu den emanaldi berrirako ere balio dute.

Bilbo, 2023ko martxoaren 29a. – Arriaga Antzokiak eta Bilbaina Jazz Clubek jakinarazten dute **Maureen Choi Qu4rtet**, Maureen Choi biolinista bikaina buru duena, arituko dela Arriaga Antzokian maiatzaren 2an, 19:30ean, “BJC Arriagan” zikloaren baitan. Hasiera batean, Pierre Dørge New Jungle Orchestra zen data horretarako aurreikusita zegoena, baina, osasun kontuak tarteko, ezin izango dira Bilbora etorri, eta horregatik egin behar izan dugu aldaketa.

"BJC Arriagan" ziklotik eskaintzen den alternatiba maila musikal oso handikoa da. Izan ere, Maureen Choi jatorri korearreko biolinista iparramerikarra instrumentuaren birtuoso da, eta 5 urterekin hasi zen hura jotzen. Michigango Estatu Unibertsitateko eta Berklee College of Music-eko graduduna izanda, Choik nazioarteko hainbat biolin lehiaketa irabazi ditu eta bakarlari gisa jo izan du Australian, Asian, European eta Ipar Amerikan. Beste hainbat artistarekin ere egin izan ditu emanaldiak, besteak beste, Rodney Whitaker, Johnny O'Neal, Larry Harlow, Josh Groban, Kanye West, Trans-Siberian Orchestra eta Javier Colinarekin; horrez gain, artista askorentzat grabatu du eta filmetako soinu-bandatan jo izan du.

Maureen Choi Quartet izeneko lehen diskoa argitaratu zuen, Detroitoko jazz-eszenako izen handiekin, baina gero Espainiara iritsi zen eta, 2013an, MAUREEN CHOI QU4ARTET sortu zuen, zeinak hamar urteko ibilbidea betetzen baitu. Choirekin batera, **Daniel García Diego** (pianoa), **Mario Carrillo** (kontrabaxua) eta **Michael Olivera** (bateria) aritzen dira musika-bandan. Laukoteak *Ida y Vuelta* (2015) grabatu zuen, Choiren jatorrizko konposizio eta moldaketekin; eta 2019an *Theia* argitaratu zuen.

Maiatzaren 2an, musika inprobisatuaren panorama iraultzen ari den laukote bat izango dugu Arriagan, Pat Metheny jenioak gorapatutako Maureen Choi buru duena; Methenyk berak esan zuenez, gaur egun ez dago bera bezain originala den biolinistarik. Maureen Choi Qu4rtet taldeak 500 kontzertutik gora eman ditu Espainia osoan, eta birak egin ditu AEBn eta Asian, kritika bikainak jasoz Downbeat edo All About Jazz bezalako komunikabide espezializatuen aldetik. Taldeak heldutasun, interkonexio, sotiltasun eta musikaltasun maila handiak lortu ditu, eta zaila da horiek hitzez azaltzea, baldin eta zuzenean ikusten ez bada.

Sarrerak

Pierre Dørge New Jungle Orkestraren kontzerturako sarrerak dituzten pertsonak Maureen Choi Qu4rtet kontzertura sartu ahal izango dira txartel berekin, inolako aldaketarik egin gabe.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus